



EUSKADIKO DISEINUGILEEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE DISEÑADORES DE EUSKADI

ESTATUTU OROKORRAK

EUSKADIKO INDUSTRI-DISEINUGILEEN ELKARTEA (E.I.D.E.)

ASOCIACIÓN DE DISEÑADORES INDUSTRIALES DE EUSKADI (A.D.I.E.)

I. IZENBURUA.

XEDAPEN OROKORRAK

ERAKETA, IZENA, LURRALDE EREMUA, IZAERA JURIDIKOA, HELBIDEA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA IRAUPENA.

1. artikulua.- Oinarri juridikoak eta izena

Apirilaren 1eko 19/1997 Legean aurreikusitakoaren arabera, Euskadiko Industri-Diseinugileen Elkartea (E.I.D.E.) eratzen da.

Estatutu hauek apirilaren 22ko 873/1977 Errege Dekretuarekin bat etorritik ezartzen dira, eta indarrean dauden lege xedapenak kontuan izanik, eta Bitartekaritza, Arbitraia eta Kontziliazio Zuzendariordetza Orokorrean inskribatu behar dira, nortasun juridikoa eta jarduketara gaitasuna izan dezaten.

2. artikulua.- Lurralde eremua

EUSKADIKO INDUSTRI-DISEINUGILEEN ELKARTEAREN (E.I.D.E.) lurralde eremua Euskadiko lurralde historiko guztiak izango dira, eta beraien borondatez afiliazioa eskatzen duten eta Iritzi Batzordeak onesten dituen eta Asanblada Nagusiak berresten dituen diseinugile profesional guztiak bilduko ditu.

Elkartea izango da bertako kideen interes komunen ordezkariarako, kudeaketarako, defentsarako eta koordinaziorako organo berezia.

3. artikulua.- Izaera juridikoa

Elkartek, bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izango ditu; ondore horietarako Estatutu hauek, Asanblada Eraldatzailearen aktarekin batera, behar bezala inskribaturik egongo dira lege xedapenek agintzen duten Erregistro



EUSKADIKO DISEINUGILEEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE DISEÑADORES DE EUSKADI

Publikoan.

4. artikulua.- Helbidea

Elkartearen helbidea Bilboko Mazarredo Zumardia 37 – 7. izango da. Hala ere, Asanblada Nagusiak, edozein unetan, beste helbide batera aldatzea erabaki dezake, eta baita dagozkion ordezkaritzak ezartzea ere.

5. artikulua.- Araubide juridikoa

Elkartea Estatutu hauek, Barne Erregimeneko Araudiak eta Gobernu organoek baliozkotasunez hartutako akordioek araupetuko dute, azken horiek une bakoitzean indarrean dagoen legediaren aurkakoak ez badira.

6. artikulua.- Iraupena eta desagitea

Elkartea denbora mugarik gabe ezartzen da, eta desagitea, indarrean dauden xedapenek horretarako ezartzen duten moduan eta eskakizunak betez egingo da, Estatutu hauen VI. izenburuko aurreikuspenen kalterik gabe.

II. IZENBURUA.

ELKARTEAREN HELBURUAK

7. artikulua.-

Elkartearen helburua bazkideen interes komunak ordezkatzea, kudeatzea eta koordinatzea eta desegitea izango da.

Ondore horietarako, honako betebeharrak eta eskumen hauek izango ditu:

- a) Elkarteko kideen arteko topaketa eta trukaketa profesionalak sustatzea, dagokigun jardueran, eta baita lanbideen arteko topaketak ere, osagarriak izan daitezkeen jardueretako kideekin, jarrera analitiko interpretatiboa sustatuz jardunbide profesionalaren diseinuaren eta jardunbidearen aurrean; norbanakoen eta beren inguru naturalen, sozialen eta artifizialen benetako beharrak ikertuz.
- b) Gure garapen profesionala, prestakuntzazkoa eta kulturala sustatzea, gure prestakuntza eta eraginkortasun mailari eusteko eta handitzeko, gure inguruko sistemak eta tresnak hobetuz.
- c) Erakunde publikoen eta politika, gizarte eta industria alorretako estamentuen erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea, kasu bakoitzean gure iritziekin eta gure ondorioekin parte hartuz, a eta b ataletan adierazten diren helburuetan laguntza eskaini ahal izateko.
- d) Diseinuaren egungo egoera aztertzeko beharrezkoak diren jarduerak egituratzea, haien berregituraketari lagunduz, eta era ofizialean aitorturik dauden Goi Mailako Diseinu Eskolen sorrera indartzea, informazio pedagogikoaren eta operatiboaren harrerari eta igorpenari buruzko esanahi anitzarekin.
- e) Bazkideen gizarte, ekonomia eta laguntza alorretako hobekuntzak lortzeko beharrezkoak diren ekintzak programatzea.
- f) Espainiako eta atzerriko antzeko elkarteekin, erakundeekin edo zerbitzuekin harremanak eta elkarlana bultzatzea, bidezkoak izan daitezkeen harremanak eta elkarlanerako akordioak ezartzeko.

- g) Epaitegien edo beste edozein erakunde publikoren aurrean, indarrean dauden lege xedapenekin bat etorriko diren ekintzak burutzea.
- h) Ondasunak eskuratzeko eta izateko eta betebeharrak hartzeko aukera, horrelako taldeentzat indarrean dagoen legedian aurreikusten den araudiarekin bat etorritz.
- i) Bazkideen legezko interes komunen defentsarako beharrezkotzat edo komenigarritzat hartzen den beste edozein eginbehar betetzea.
- j) Administrazioak agintzen dizkion eginbeharrak betetzea, eta administrazioarekin elkarlanean aritzea, azterlanak eginez, txostenak emanez, estatistikak burutuz edo elkartearen helburuekin erlazonaturiko beste batzuk, kanpokoek eskatuta edo bere kabuz.
- k) Norbanakoei eta mota guztietako erakundeei aholkularitza ematea, bere eskumeneko gaietara dagokienez, beharrezkoak izan daitezkeen txostenak emanez, eta, arrazoi profesionalak direla eta, bazkideen artean sor daitezkeen arazoetan kontziliazio edo arbitraje bide gisa parte hartuz.
- l) Lanbidearekin erlazonaturik dauden kultura, zientzia, teknika edo praktika izaera duten betebeharrak antolatzea eta gauzatzea, eta baita bazkideen birziklapen profesionalerako ikastaroak ere.
- m) Industri diseinugileek bete edo garatu beharreko lanei eta lanpostuei buruzko informazio zerbitzu aktiboa eta eraginkorrari eustea, ahalik eta ongien egokitzea lortzeko, diseinugileen lan profesionala eta industria errendimendua ahalik eta eraginkorra izan dadin.
- n) Epaitegiei, epaiketa alorreko gaietan Peritu gisa parte hartzeko eska daitezkeen kideen zerrendak bideratzea, legeekin bat etorritz, edo elkarteak berak izendatzea, kasu bakoitzean dagokiona.
- o) Arrazoi profesionalak direla eta, bazkideen artean sor daitezkeen arazoetan kontziliazio edo arbitraje bide gisa parte hartzea eta, orokorrean, bazkideen arteko harmonia eta elkarlana bilatzea, haien arteko lehiakortasun desleiala saihestuz.
- p) Interesaturiko aldeek hala eskatuta, elkarteko kideek, beraien lanbidea burutzen ari ziren bitartean egindako lanen ondoriozko eginbeharrak betetzearen inguruak sor daitezkeen desadostasunak laudo bitartez ebaztea.

III. IZENBURUA

BAZKIDEEI DAGOKIENA

1. KAPITULUA.

KIDE IZAERA ESKURATZEA. BALDINTZAK

8. artikulua.- Kide motak eta bakoitzak bete beharreko baldintzak

Bazkideak mota hauetakoak izan daitezke:

- a) Eskubide osoko kideak.
- b) Kide laguntzaileak.
- c) Kide babesleak.
- d) Ohorezko kideak.

9. artikulua.-

- a) Elkartean izena eman dezakete, **eskubide osoko kide gisa**, beraien zerbitzuak elkartearen lurralde eremuan eskaintzen dituzten eta elkarteko kide izateko eskaria aurkezten dutenak, eta beraien soslai profesionala eta gaitasun pertsonalak eta prestakuntzazkoak aurkeztu eta gero, eta gure helburuekin bat etorri eta estatutuak beteko dituztela onartu eta gero, Iritzi Batzordeak onetsi eta dagokion Gobernu Zuzendaritza Taldeak berretsi beharko du eskaria.
- b) **Kide laguntzaile** gisa sartzeko eskaria egin ahal izango dute gure helburuekiko interesa duten pertsona fisikoek edo juridikoek, beraien soslai profesionala aurkeztuz. Iritzi Batzordeak onetsi eta dagokion Gobernu Zuzendaritza Taldeak berretsi beharko du eskaria.
- c) **Kide babesle** gisa sartzeko eskaria egin ahal izango dute gure helburuekiko interesa duten eta mota bateko edo besteko laguntzen bitartez beraien laguntza adierazten duten pertsona fisikoek edo juridikoek edo erakunde publikoek edo pribatuek. Iritzi Batzordeak onetsi eta dagokion Gobernu Zuzendaritza Taldeak berretsi beharko du

eskaria.

- d) **Ohorezko kide** dira Espainiar Estatuko edo atzerriko pertsona naturalak edo juridikoak, Elkargoak, Erakundeak... industri diseinugileak izan edo izan ez, Bazkideen Asanblada Nagusiaren iritziz eta Gobernu Batzarraren proposamenez, izendapen hori merezi badute, gure Elkarteari edo lanbideari egindako zerbitzu azpimarragarriak direla eta.

10. artikulua.-

Elkartean sartzea borondatez egingo da, eta bertako kideek edozein unetan ahal izango dute elkarteko kide izatea utzi, Zuzendaritza Taldeari idatziz jakinaraziz, baja hartu baino hamar egun lehenagoko epean. Horretarako dagoen liburuak altei eta bajei buruzko informazioa jasoko du.

Halaber ezartzen da Elkartea uzteak ez dituela baztertzen aurretik hartutako erantzukizunak.

2. KAPITULUA

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua.-

Eskubide osoko kide guztiek eskubide eta eginbehar berberak dituzte.

12. artikulua.-

Eskubide osoko kideek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Ordezkaritza postuak aukeratzeko eta postu horietarako aukeratuak izateko eta zuzendaritzako karguak izateko eskubidea .
- b) Kasu jakin batzuetan bere esku utz daitekeen ordezkaritza aurrera eramateko eskubidea.
- c) Elkartek, bere helburuak betetzeko jardunaren barruan, izan ditzakeen lorpen eta buruzapen guztiei buruzko informaziorako eta partaidetzarako eskubidea.
- d) Elkartek sustatzen dituen jardueretan parte hartzeko eskubidea.
- e) Elkartek sortzen dituen arreta zerbitzuez gozatzeko eskubidea.

- f) Elkartearen liburuak, egiaztagiriak eta kontuak aztertzeo eskubidea, estatutuetan aurreikusten den eran.
- g) Elkartearen instalazioak erabiltzeo eskubidea.
- h) Asanblada Nagusiko eta eskubideen barruan sartzen diren Elkarteko beste erakunde batzuetako bileretara joateko eta boto eskubidea era librean erabiltzeo eskubidea.
- i) Elkarteko kide gisa dituen eskubideak defendatzeko bidezkoak diren ekintzak eta helegiteak erabiltzeo eskubidea.
- j) Elkarreak ordezkatuak izatea, Gobernu Batzarrak horrela erabakitzen duenean, jardunbide profesionalarekin erlazonaturiko ekintzak, salbuespenak eta defentsak errazteko, Epaitegien, agintarien eta Erakunde publikoen eta pribatuen aurrean.
- k) Elkarteko Gobernu postuetarako kandidaturak modu librean aurkezteko eta aukeratuak izan badira kargu horiek betetzeo eskubidea.
- l) Elkartearen Gobernu Batzarraren aurrean, elkarteko kide den edozein kideren jarduketa profesionalaren aurreko kexak aurkezteo eskubidea.
- m) Eskubide horiek erabiltzeo orduan, Elkarteko kideek legeek esaten dutena, Estatutuek aurreikusten dutena eta zuzendaritza organoek hartutako akordioak bete behar dituzte.

13. artikulua.-

Kideek eginbehar hauek izango dituzte:

- a) Eskubide osoko kideak izango dira ordezkariak eta agintariak aukeratzeko orduan botoa izango duten bakarrak.
- b) Beraien jarduketa indarrean dauden lege arauetara, Estatutuek aurreikusten dutenera eta legez hartutako akordioetara egokitu beharko dute.
- c) Asanblada Nagusiak eta Zuzendaritza Taldeak era baliagarrian hartu dituzten akordioak bete beharko dituzte.
- d) Iritzien adierazpen librea errespetatu beharko dute eta Elkartearen jarduerari ez diete traba zuzenik edo zeharkakorik jarriko.

- e) Izaera erreserbatua ez duten gaiei buruzko informazio baliagarria eta arduratsua ematea, Elkarteko Gobernu Organoek hala eskatzen dutenean.
- f) Elkartearen jardueri eusteko eta jarduera horiek garatzeko bidezkoak diren kuotak garaiz ordaintzea.
- g) Aukeratuak izan badira, postu horiek betetzea.
- h) Elkarteari dagokion informazioa bideratzea. Informazio horretan enpresaren izena, helbidea, lantokiak, bertan ari diren langileak, zer motatako jarduerak egiten dituen eta Elkartearen aurrean enpresaren ordezkari izango den pertsonaren izena, edo Elkarreak azterlanak, txostenak, estatistikak... egiteko beharrezkoak izan daitekeen beste edozein datu eta informazio agertu beharko da.
- i) Estatutu hauen, Barne Araubideko Araudiaren, Elkarteko Gobernu Organoek hartutako akordioen eta bestelako lege xedapenen ondorioz sor daitekeen beste edozein eginbehar.

14. artikulua.-

Kide laguntzaileek, babesleek eta ohorezkoek, bakoitzari dagokion eskubide eta eginbeharrei dagokienez berdintasuna izango dute.

Horrelako kideen eskubideen artean, Elkartearen jardueri eta helburuak betetzeari buruzko informazioa garaiz jasotzeko eskubidea azpimarratu behar da.

Elkarreak sustatzen dituen jardueretan parte hartzeko eskubidea.

Eginbeharrei dagokienez, Elkarreak azterlanak, txostenak, estatistikak... egiteko beharrezkoak izan daitezkeen datuak eta informazioa ematea azpimarratu behar da.

15. artikulua.-

Eskubide osoko kideek beraien eginbeharrak bete ez izateak, ondorengo zehapenen bat eragingo du:

- Ohartarazpena.
- Eskubideen aldi baterako etetea.

- Bazkide izaera galtzea.

Hori guztia Barne Araubideko Araudiak ezartzen duena kontuan izanik.

Aurreko lerroaldean adierazten diren zehapenak ezartzeko organo eskuduna Zuzendaritza Taldea izango da, eta faltaren larritasunaren edo errepikapenaren arabera ezarriko ditu, aurretik espedientea zabalduz, hurrengo artikuluan ezarritakoan izan ezik.

Halaber, elkarteak bere arbitraje erakunde propioa eratu ahal izango du, indarrean dagoen legediak zehazten duen eran, kideen artean sor daitezkeen auzi gaiak ebazteko.

3. KAPITULUA

KIDE IZAERA GALTZEA

16. artikulua.-

Elkarteko kide izaera galduko da honako zergati hauen ondorioz:

- a) a) Asanblada Nagusiaren akordioz, Zuzendaritza Taldearen proposamenari jarraituz, ondorengo kasuetan:
 1. Estatutu hauetan edo Barne Araubideko Araudian biltzen diren arauen ez betetze larriaren ondorioz.
 2. Kuoten ordainketan egunean ez egoteagatik.
 3. Gobernu Organoek hartutako akordioak ez betetzeagatik, horrek gainerako kideentzat kalteak eragiten dituen kasuetan.
- b) Berezko uko egitearen ondorioz, aurretik hartutako eginbeharrak bete eta gero, Zuzendaritza Taldeari jakinaraziz. Zuzendaritza Taldeak bidezkoak irizten dituen aurreikuspenak eta bermeak hartuko ditu, bereiztu den kideak bete gabe dituen konpromisoak eta eragiketak burutu ahal izateko.
- c) Edozein arrazoiren ondorioz kidearen jarduera amaitzen denean, jarduera hori izan baita bazkide izateko zergati nagusia.
- d) Zigor jurisdikzioan emandako epai irmo bitartez sortutako gaitasungabetzearen edo

etetearen ondorioz, horiek jarduera profesionalari buruzkoak baldin badira.

Aurreko atalean adierazi den edozein zergati dela eta kide izaera galtzean eskubide guztiak galduko dira, inolako salbuespenik gabe, eta ezin izango da ordaindutako kuoten itzulketa osoa edo partziala eskatu. Horrez gain, Elkartean baja hartu duen egunera arte indarrean egon diren kudeaketen ondoriozko gastuetan, eskubideetan eta eginbeharretan bere parteari dagokion erantzukizuna izango du.

Kaleratze akordioaren aurka, bazkideak helegitea aurkeztu ahal izango du Asanblada Nagusiaren aurrean.

IV. IZENBURUA

GOBERNU ORGANOAK ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

17. artikulua.-

Elkarteko Gobernu Organoak hauek dira: Asanblada Nagusia, Zuzendaritza Taldea eta Presidentea.

Elkartek, bere barruan, bere helburuak ongien betetzeko beharrezko irizten dizkion Zerbitzuak, Batzordeak edo Lan Taldeak osatu ahal izango ditu. Horien eraketa Zuzendaritza Taldearen esku egongo da.

1. KAPITULUA

ASANBLADA NAGUSIA

18. artikulua.- Eskumenak

Asanblada Nagusia da Elkarteko Gobernu eta ordezkari-tza Goi Organoa, eta bazkide guztiek osatuko dute, bertaratutakoek edo legez ordezkaturakoek.

Eskumen hauek ditu:

- a) Estatutuak eta Barne Araubideko Araudia onartzea edo aldatzea.
- b) Bertako kideen interes profesionalen ordezkari-tzarekin, kudeaketarekin eta defentsarekin erlazionaturako akordioak hartzea, bere egitekoen barruan, eskumen hori Zuzendaritza Taldearen esku uztearen kalterik gabe.
- c) Erakunde publikoen aurrean agertzeari eta mota guztietako helegiteak jartzeari buruzko akordioak hartzea, bertako kideen interes profesionalak era egokian eta eraginkorrean defendatu ahal izateko.
- d) Jarduketa programak eta planak onartzea.
- e) Zuzendaritza Taldeko kideak aukeratzea, sufragio libre eta sekretu bitartez.

- f) Zuzendaritza Taldearen kudeaketa ezagutzea.
- g) Kideek ordaindu beharko dituzten kuotak ezartzea, Zuzendaritza Taldeak burutuko dituen proposamenekin bat etorriz.
- h) Aurrekontuak eta kontuak onestea, eta baita balantzeak ere.
- i) Urteko jarduera memoria onestea.
- j) Duten garrantzia dela eta, Zuzendaritza Taldeak edo bertako kideek bere esku uzten dituen gaiei buruz ebaztea.
- k) Elkartea desagitea erabakitzea.
- l) Beraien kuoten ordainketan egunean dauden Elkarteko kide guztiek Asanblada Nagusian parte hartzeko eskubidea dute, ahotsez eta botoz, beraiek zuzenean, legez ordezkatzan dituen pertsonaren bitartez edo kasu bakoitzerako izaera berezia izango duen idatzizko agindua duen beste kide baten bitartez.

19. artikulua.- Bilerak

Asanblada Nagusia urtean behin bilduko da ezinbestean ohiko izaeraz. Horretarako, aurretik Idazkariak deialdia egingo du eta Eguneko gai zerrenda emango du, Presidentearen izenean, hamabost eguneko aurrerapenez, gutxienez.

Ez ohiko izaeraz, Elkarteko kideen bostetik batek hala eskatzen duenean bilduko da. Eskaria arrazoitutako idazkiz egin beharko da. Horrez gain, Zuzendaritza Taldeak hala erabakitzen duenean ere bilduko da. Telegrama bitartez ere egin ahal izango da deialdia, bost eguneko aurrerapenez, gutxienez.

20. artikulua.- Quorumak

Asanblada Nagusia, ohikoa zein ez ohikoa, lehen deialdian era baliagarrian eratuta geratuko da bertako kideen erdia gehi bat bertan edo ordezkaturik daudenean; bigarren deialdian era baliagarrian eratuta geratuko da bertaratutako kopurua bat edo beste izanik ere.

Bigarren deialdia, lehena baino ordu erdi geroago burutuko da, toki berean.

Beharrezkoa izango da Presidente, Idazkaria edo horiek legez ordezkaturik dituztenak bertan egotea.

Zuzendaritza Taldeak, galde eskarien atalean, bazkideek, bilera burutu aurreko hiru eguneko epean, idatzizko eskari bitartez egindako proposamen guztiak bilduko ditu. Halaber, premia arrazoiak direla eta, bileran planteaturiko gaiak ere eztabaidatu ahal izango dira, horrela erabakitzen badu bertaratutako guztien ehuneko hogeia, gutxienez.

21. artikulua.- Mahaiaren eraketa

Asanblada Nagusiaren, ohikoaren zein ez ohikoaren, buru, Elkartearen Presidentea izango da. Presidentea ez dagoenean, postua hutsik dagoenean edo gaixorik dagoenean, bere tokia Presidenteordeak hartuko du.

Asanbladako Mahaia Elkarteko Presidenteak, eta Zuzendaritza Taldeak, txandaka, aukeratuko dituen bi mahaikidek osatuko dute, eta Idazkaria Elkartearen idazkaria bera izango da; Idazkaria ez dagoenean, postua hutsik dagoenean edo gaixorik dagoenean, bere tokia, Presidentearen eginbeharrak betetzen dituen pertsonak izendatutako Elkarteko kide batek hartuko du.

Presidenteak amaiera emango dio eztabaidari, bere iritziz gaia behar adina eztabaidatuta dagoenean, eta akordioak hartzeko prozesua gehiegi luzatuko duten gaiei buruz ebatziko du.

22. artikulua.-

Akordioak, bertan edo ordezkaturik dauden bazkideen botoen gehiengoz hartuko dira, Estatutuek edo Barne Araubideko Araudiak “quorum” berezia eskatzen duten kasuetan izan ezik. Bozketaren modalitatea Asanbladak berak erabakiko du.

Akordioek, onetsi eta gero, bazkide guztiak behartuko dituzte, baita Asanbladan parte hartu ez dutenak ere, eta indar betearazlea izango dute, indarrean dauden xedapenetan aurreikusten diren kasuetan eta formalitateekin horien burutzapena etetea erabakitzen ez bada.

23. artikulua.- Aktak

Idazkariak bilera bakoitzari buruzko akta jasoko du. Akta horretan hartutako akordio guztiak eta emandako iritzien laburpena jasoko da, guztien irizpidea berbera ez denean edo interesatuek hala eskatzen dutenean.

Akta onespenerako aurkeztuko da, ondoren adierazten den moduetako batean:

- a) Bileran bertan irakurriz.
- b) Bertaratuei bidaliz. Bertaratuek, hamabost eguneko epean, beraien oharrak edo

eragozpenak idatziz jakinarazi beharko dituzte. Horrelakorik ez badago, akta dagoen bezala onetsita geratuko da.

- c) Hurrengo bileran.

Akta Idazkariak sinatuko du, Presidentearen edo legez presidente gisa jardun duenaren on ikusiarekin. Onetsi eta gero Elkarteko Akten Liburuan sartuko da.

2. KAPITULUA

ZUZENDARITZA TALDEA

24. artikulua.- Karguen aukeraketa, iraupenaldia eta eskumenak

Zuzendaritza Taldea da Elkartearen zuzendaritzaz, gobernuaz eta administrazioaz arduratzen den organoa. Sufragio librez eta sekretuz aukeratuko da berariaz horretarako deitutako Asanblada Nagusian, gehienez hamar eta gutxienez bost bazkide izango ditu, eta Asanblada Nagusiak aukeratuko ditu bere kideen artean.

Karguak bi urteko iraunaldi luzagarria izango du. Zuzendaritza Taldean hutsuneren bat gertatzen bada, bazkideen artean hutsune hori bete behar duen pertsona aukeratuko du, eta pertsona horrek Asanblada Nagusiaren hurrengo bilerara arte beteko du kargua. Asanbladak izendapena berretsi ahal izango du. Zuzendaritza Taldeko kideek ez dute inolako ordainketa jasotzeko eskubiderik izango, baina ordezkartzako eta ordejarritako gastuak arauz ezarriko dira.

Zuzendaritza Taldeak eskumen hauek ditu:

- a) Asanblada Nagusiko akordioak betetzea eta betearaztea.
- b) Helburuak aurrera eramateko eta garatzeko beharrezkoak diren Elkartearen jarduerak burutzea eta zuzentzea.
- c) Iritzi Batzordearen erabakiak berrestea edo, horrela ez bada, arrazoiak azaltzea, berraztertu ahal izateko. Desakordioak jarraitzen badu, Asanblada Nagusian aurkeztu eta eztabaidatuko dira, eta Asanblada izango da azken erabakia hartuko duena.
- d) Asanblada Nagusiari Elkarteko interesen defentsa proposatzea, era egokian eta eraginkorrean.

- e) Halaber, Asanblada Nagusiari jarduketa programak proposatzea eta jada onetsita daudenak gauzatzea, Asanbladaren aurrean jarduketa horien betetzeari buruzko kontuak aurkeztuz.
- f) Asanblada Nagusiko akordioak betetzen direla zaintzea.
- g) Bertako kideen artean Elkarteko Presidentea, Presidenteordea eta Diruzaina aukeratzea.
- h) Asanblada Nagusiaren ez ohiko bilerak noiz burutuko diren erabakitzea.
- i) Elkarteko kideek ordaindu beharko dituzten kuotak proposatzea Asanblada Nagusiari.
- j) Aurrekontuak, balantzeak eta kontuen likidazioak aurkeztea, Asanblada Nagusiak onets ditzan.
- k) Jardueren urteko memoria egitea, Asanblada Nagusiaren aurrean aurkeztuz, hark onets dezan.
- l) Elkartearen helburuak modu egokian eta eraginkorrean betetzeko batzordeak eta lan taldeak izendatzea.
- m) Edozein erakunderen edo jurisdikzioen aurrean mota guztietako helegiteak eta ekintzak aurkeztearekin erlasionaturiko akordioak hartzea.
- n) Kobrantzei eta ordainketak agintzeari eta igorpenen bidalketari buruzko erabakiak hartzea.
- o) Kontabilitatea eta kobrantzen eta ordainketen mekanika ikuskatzea, Diruzainaren eskumeneren kalterik gabe.
- p) Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioari, ekintzen burutzapenari eta ahalordeak emateari buruzko akordioak hartzea.
- q) Bazkideentzat interesgarriak izan daitezkeen txostenak eta azterlanak egitea.
- r) Premia handiko kasuetan, Asanblada Nagusiari dagozkion gaiei buruzko erabakiak hartzea, eta Asanbladari horren berri ematea, burutzen duen lehenbiziko bileran.
- s) Asanblada Nagusiak bere esku utz ditzakeenak.

25. artikulua.- Bilerak

Zuzendaritza Taldea hala erabakitzen duenean bilduko da ohiko izaeraz, eta hiru hilabetez behin, gutxienez, Idazkariak, Presidentearen izenean, deialdia eta eguneko gai zerrenda bidali ondoren, hamabost eguneko aurrerapenarekin, gutxienez, landu beharreko Eguneko Gai Zerrenda ulergarria bidaliz.

Premiazko kasuetan, gai zerrendan ez dauden gaiak ere landu ahal izango dira.

Ez ohiko izaeraz, beharrezkoa den guztietan, deialdia eta eguneko gai zerrenda bidali ondoren, telegramaz, gutxienez bost egun balioduneko aurrerapenarekin.

26. artikulua.- Funtzionamendua

Zuzendaritza Taldea baliozkotasunez eratuta dagoela ulertuko da bilerara bertako kideen erdia gehi bat joaten direnean eta Presidente eta Idazkaria edo horien ordezkariak daudenean.

Berdinketa gertatuz gero, akordioak hartzeko Presidentearen kalitatezko botoa erabiliko da.

Zuzendaritza Taldearen ohiko zein ez ohiko saioetako eztabaidak eta akordioak aktetan jasoko dira. Presidenteak eta Idazkariak sinatu ondoren, dagokion Akten Liburuan bilduko dira.

3. KAPITULUA

PRESIDENTEA

27. artikulua.- Aukeraketa eta eskumenak

Zuzendaritza Taldeko Presidenteak izango du Elkartearen ordezkaritza, eta Taldeak berak aukeratuko du, sufragio libre eta sekretuaren bitartez.

Presidenteordea, Presidente aukeratzeko den modu berean aukeratuko da, eta hark bere esku uzten dituen funtzioak beteko ditu, eta bere tokia hartuko du hura kanpoan edo gaixorik dagoenean edo kargua hutsik dagoenean. Presidenteordearen kargua hutsik balego, aukeraketa berria egin arte, Zuzendaritza Taldeak aukeratutako mahaikideak hartuko du presidentzia bere esku.

Presidentearen edo, Estatutuen arabera haren tokia betetzen duenaren, eskumenak honako hauek dira:

- a) Asanblada Nagusiaren eta Zuzendaritza Taldearen buru izatea.
- b) Bileretako eztabaidak eta ordena zuzentzea eta akordioak gauzatzea.
- c) Elkartea ordezkatzeko mota guztietako ekitaldietan edo kontratuetan, eta ahalordeak ematea, Zuzendaritza Taldeak aurretik horretarako akordioa hartu eta gero.
- d) Estatutu hauek ematen dizkieten eginbehar bereziak betetzea.
- e) Bileren aktak baimentzea.
- f) Elkartearen jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren kargu teknikoaren izendapena proposatzea Zuzendaritza Taldeari.

28. artikulua.- Idazkaria

Zuzendaritza Taldeak izendatuko du. Estatutu hauek ematen dizkieten betebeharez gain, honako hauek ere izango ditu:

- a) Elkartek legezkotasuna errespetatzen duela zaintzea, ager daitezkeen ez legezkotasun kasu posibleen berri emanez.
- b) Elkartearen gobernu organoen bilerak deitzea, Presidentearen izenean.
- c) Elkarteko organoek burutzen dituzten bileren aktak eta akordioen ziurtapenak egitea, Presidentearen on ikusiarekin.
- d) Akten liburua eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea.
- e) Administrazio betebeharrak burutzea, eta bere kargura izatea langileen eta zerbitzuen zuzendaritza. Gobernu Organoen bileretan hartuko du parte, hitzarekin baina botorik gabe.

29. artikulua.- Gobernu Batzarreko mahaikideak

Mahaikideek eskumen hauek izango dituzte:

- a) Gobernu Batzarreko gainerako karguen titularrei laguntza ematea eta beraien tokia

betetzea kanpoan edo gaixorik daudenean edo aldi baterako hutsunea eragin dezakeen beste edozein abagunetan.

- b) Gainerako Mahaikideekin ezarritako txanden arabera, Elkartearen egoitza sozialera joatea, hala eskatzen duten gaiei arreta eskaini ahal izateko.
- c) Presidenteak edo Gobernu Batzarrak beraien esku uzten dituzten eginbeharrak betetzea, eta baita aukeratuak izan diren batzordeetan parte hartzea ere.

4. KAPITULUA

ARAUBIDE EKONOMIKOA

30. artikulua.-

Elkarteak erabateko autonomia izango du bere baliabide propioak administratzeko, indarrean dauden xedapenekin bat etorritz.

Elkartearen baliabideak, aurrekontuei edo ondareei dagozkienak badira ere, elkarteari dagozkion helburuetara eta jardueretara bideratuko dira.

31. artikulua.-

Bere helburuak betetzeko, Elkarteak honako baliabide ekonomiko hauek izango ditu:

- a) Bazkidea onartzeko ekitaldian ordaindu beharreko izen emate tasa. Horren zenbatekoa Asanblada Nagusiak ezarriko du.
- b) Elkartearen kuota berezian kontzeptu gisa bildutako diru kopuruak.
- c) Arauak betez adosturiko beste baliabide, banaketa eta derramak.
- d) Bere ondasunen produktuak eta errentak, banketxeetako kontuen interesak eta gainerako finantza produktuak.
- e) Jaso ditzakeen emariak, diru-laguntzak eta ekarpenak, hala bada.
- f) Legezko xedapenekin bat etorritz jaso dezakeen beste edozein baliabide.

32. artikulua.-

Elkartearen funtzionamendu ekonomikoa aurrekontu erregimenak araupetuko du.

Diru-sarreraren eta gastuen ohiko aurrekontua urtero idatziko da, eta Asanblada Nagusiak berrikusi eta onetsiko du, Zuzendaritza Taldearen proposamenari jarraituz.

Aurrekontuaren aldaketarako Asanblada Nagusiaren akordioa ere eskatuko da. Ohiko aurrekontuan aurreikusten ez diren obrak eta zerbitzuak egiteko, ez ohiko aurrekontuak gauzatu ahal izango dira.

Ekitaldi ekonomikoak urte naturalarekin bat etorriko dira.

33. artikulua.-

Zuzendaritza taldeak administraziorako eta kontabilitaterako arauak ezarriko ditu. Ordainketak aginduko dituen Elkarteko Presidentea izango da, eta Diruzainaren sinadura ere beharko da.

Kontuzainak kobrantzei eta ordainketei buruzko dokumentu guztien esku hartzea egingo du. Diruzainari dagokionez, Elkarteko funts guztiak kontserbatzen direla zainduko du, Zuzendaritza Taldeak ezartzen duen moduan, eta kobrantzei eta ordainketei buruzko dokumentu guztiak sinatuko ditu.

Elkartearen egoera ekonomikoa ezagutu nahi duten bazkideak Presidentearengana zuzendu beharko dira idatziz, hilabete bakoitzeko lehen egun balioduna baino hamar eguneko aurrerapenez. Egun horretan, goizeko hamarretatik hamabietara, Elkartearen helbidean, eskatutako liburuak eta kontabilitateko dokumentuak eta egiaztagiria aztertu ahal izango dituzte.

Halaber, eta Elkartearen egoera ekonomikoa ezagutzeko xede berberaz, dokumentu horiek bazkideen esku egongo dira, aurretik jakinarazi behar gabe, toki eta ordu berebean, Urteroko Ohiko Asanblada ospatzeko adierazitako egunaren aurreko bi egun baliodunetan.

34. artikulua.-

Elkartearen baliabide ekonomikoak eta ondarea elkartearen helburuak betetzera bideratuko dira.

V. IZENBURUA.

ESTATUTUEN ALDAKETA

35. artikulua.-

Estatutu hauek Asanblada Nagusian aldatu ahal izango dira, Zuzendaritza Taldearen edo, gutxienez, bazkide guztien herena ordezkatzeko duen bazkide taldearen proposamenari jarraituz.

Estatutu hauek aldatzeko edo berrizatzeko, lehen deialdian kideen %75aren presentzia eta %70aren akordioa behar da, lege aginduz eskatzen diren kasuetan izan ezik.

Bigarren deialdian, bertaratuen bi herenen gehiengoz hartuko dira akordioak.

36. artikulua.-

Elkartea zergati hauen ondorioz desegin da:

a) Asanblada Nagusiak horrela erabakitzen duenean, Bazkideen bi herenen aldeko botoarekin.

b) Ondorengo helegiterik aurkezteko aukerarik ematen ez duten epai judizialez, agintaritza eskudunaren xedapenez, edo lege xedapenetan aurreikusitako beste edozein zergatiren bitartez.

37. artikulua.-

Desegitea adostu edo agindu ondoren, bete gabe dauden eginbehar guztiak beteko dira, eta berehala bete behar ez direnak geroago ordainduko direla ziurtatuko da, izaera soziala dutenak, batez ere.

Desegitea akordioan ezarriko da zer egingo den oraindik bete gabe dauden eginbeharrak bete eta gero gero daitezkeen Elkartearen ondasunekin, eskubideekin, instalazioekin eta zerbitzuekin.

Desegitea Asanbladaren akordioz egiten bada, bazkideek, Elkartearen kide gisa hartutako eginbeharrak betetzeko erantzukizuna baino ez dute izango.

38. artikulua.-



EUSKADIKO DISEINUGILEEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE DISEÑADORES DE EUSKADI

Asanblada Nagusiak besterik erabakitzen ez badu, likidatzaileak Zuzendaritza Taldeko kideak izango dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena: Estatutu hauek, aplikagarri zaizkien xedapenetara egokitu beharko dira.

Bigarrena: Estatutuak onetsi ondoren, Asanbladak Barne Araubideko Araudia prestatu beharko du, sei hilabeteko epean.

DILIGENTZIA: estatutu hauen testua bat dator ondoren adierazten den egunean buruturiko asanblada eratzailan onetsitakoarekin.